

## Gripeari aurre egiteko lo eginarazten duen proteina bat aurkitu dute

Lo gehiago eginez gripea errazago sendatzea eragiten duen garuneko proteina bat aurkitu dute Washington State Unibertsitateko ikertzaile batzuek. Saguekin egindako ikerketan ikusi dute proteina hori gabe saguek sintoma larriagoak eta heriotza-tasa handiagoak dituztela gripearen aurrean. [Brain, Behavior, and Immunity](#) aldizkarian argitaratu dute ikerketa.

Bakterioen eta birusen infekzioei aurre egiteko loa garrantzitsua dela ezaguna zen. Eta ikerketa honekin erakutsi dute AcPb izeneko garuneko proteina batek zerikusi handia duela horretan.

Proteina hori interleukina-1 proteinari lotzen zaio, eta bien artean loa erregulatzen dute animalia osasuntsuetan, eta gaixoei lo gehiago egitea eragiten dute.

Ikerketa honetan H1N1 birusarekin infektatu zituzten sa-guak. Ikusi zuten AcPb proteinaren generik ez zuten saguek lo gutxiago egiten zutela, hoztu egiten zirela, erritmo zirkadianoa galtzen zutela, eta gehiago hiltzen zirela.



ARG.: TAB62/DOLLAR PHOTO CLUB

Ikertzaileek adierazi dute gripearen kontrako medikamentu berriak sortzeko bide bat ireki dezakeela aurkikuntza honek, eta posible ikusten dute AcPb proteinaren ekoizpena areagotzea eragingo lukeen botika bat sortzea. ●

## 2014a izan da dokumentatutako urterik beroena

Lurraren gainazaleko batez besteko temperatura inoizko handiena izan da 2014n, datuak biltzen direnetik. Hala adierazi dute Japoniako Meteorologia Agentziak, NASAK eta Estatu Batuetako Ozeanoen eta Atmosferaren Erakundeak (NOAA).

Sateliteen eta estazio meteorologikoen bidez, lurrazaleko eta itsas azaleko tenperaturaren jarraipena egiten dute hiru erakunde horiek urtez urte, Erresuma Batuko Hadley zentroarekin batera. Azken horren behin betiko analisiaren zain, bat datozen datuak argitaratu berri dituzte beste hiru erakundeek.

[Japoniako Meteorologia Agentziak urtarilaren 5ean](#) argitaratu zituen bere datuak. Horien arabera, 1891tik (datuak biltzen hasi zirenetik) izan den urterik beroena izan zen iazkoa. Zehazki, 1981-2010 aldiaren batez besteko temperatura baino 0,27 °C beroagoa izan da 2014, eta XX. mendearen batez besteko temperatura baino 0,63 °C beroagoa. Denbora-eskala

luzeagoari erreparatuz gero, datuek erakusten dute 0,70 °C igo dela batez besteko tenperatura, mende batean.

2014ra arte, 2010, 2005 eta 1998 izan ziren, hurrenez hurren, urte beroenak. Alabaina, urte horietan El Niño fenomenoak gertatu zen Pazifi-

koan, eta El Niño urteak beroagoak izan ohi dira. 2014, ordea, El Niño-rik gabekoa izan da, eta horregatik are adierazgarriagozat jo dute meteorologoket maximoa.


Japoniako Meteorologia Agentziaren ondotik, joan den [urtarilaren 16an eman](#)

[zituzten NASAK eta NOAAk datuak](#). 1880an hasten da haien erregistroa, eta, kasu honetan ere, 2014 urtea ageri da goiko erpinean. 10 urte beroenak ere ez daude oso urrutiti: 2000. urtetik aurrerakoak dira guztiak (salbu eta 1998), datuek erakustez dutenez.

Hurrengo bideoan Lurraren batez besteko tenperaturaren eboluzioa jaso du NASAK, 1880tik 2014ra (bosna urteko serieak daude adierazita):

“Urte beroen serie bateko azkena da hau —adierazi du NASAKo Gavin Schmidtek—. Urteetako bakoitzari eguraldi-patroi kaotikoei eragin ahal diete, baina epe luzeko joeren atzean klima-aldaketaren eragileak daude; gaur egun, batez ere, gizakiak isuritako berotegi-gasak”.

Hadley zentroak ez du oraindik argitaratu planeta osoaren batez besteko tenperaturaren emaitza. [Erresuma Batuari dagokionaren berri eman du](#), eta azken horrek ere bat egiten du beste hiru erakundeen datuekin. ●



Gainazaleko batez besteko tenperaturaren igoera, urtez urte. Grafikoan grisez jasota dagoen datua honakoa da: urte bakoitzaren batez besteko tenperaturaren desbideratzea (anomalia) erreferentzia jakin batekiko. Erreferentzia hori 1981-2010 epealdiko batez besteko tenperatura da. Lerro urdinean bosna urteka daude irudikatuta tenperaturaren batezbestekoak, eta lerro gorriak epe luzeko joera lineala adierazten du. ARG.: JAPONIAKO METEOROLOGIA AGENTZIA (ERREDAKZIOAN EUSKARATUA).